

## **MGEPEko Gautxoriko Urbanizazioa**

**Arrasateko Udal Bilkura, 2019-05-07**

### **Arrasate eta Arrasateko paradoxa**

*Debagoiena, Arrasate barne, Euskadiko eskualde berritzaileena da, seigarren urtez jarraian hor gaude, lehenengo posizioan. Eustaten arabera, 20.000 biztanle baino gehiago daukaten herrien artean, Arrasate da Euskadiko industrializatuena, BPGaren %32,8 Industrian dago (Euskadiko bigarren postuko herriarena, %27,6a da).*

*Debagoiena, eta Arrasate, Gipuzkoako eskualde orekatuena da, sozial eta ekonomikoki, eta Gipuzkoa da Europako lurralderik orekatuenetarikoa bat. Ez da kasualitatea, eta dudarik gabe Mondragon Goi Eskola Politeknikoak, Eskolak, badauka zer ikusirik emaitza honetan.*

*Hezkuntza ezinbestekoa da gizarte aurreratu batean bizitzeko. Arizmendiarietak esaten zuen: "La educación es la primera empresa de un pueblo". "Hezkuntza garestia bada herrialde batentzat", Harvardeko Errektore batek (Derek Bok) esaten zuen moduan, "saiatu ezjakintasunarekin". Debagoienan eta Arrasaten, tamalez, oraindik hezkuntza maila media azpitik dago, jende askok besterik uste badu ere. Euskadin herritarren %12,8k goi mailako ikasketak ditu (unibertsitateko titulu bat edo goi mailako lanbide heziketako titulu bat); Debagoienan, aldiz, %10,8k eta Arrasaten %10,3k. Batezbestekoaren azpitik gaude, eta nabarmen gainera. Arrasateko enpresa askotan, oraindik ere, formakuntza baxuko edo formakuntzarik gabeko langile asko daukagu. Debagoienako langileen artean, %18k ez daukate inolako kualifikaziorik, Euskadiko batz bestekoa, %14,3 da. Euskadiko bigarren eskualde altuena gara indikadore honetan.*

*Zer gertatuko da hurrengo krisialdian (dudarik gabe, etorriko da eta)? Irtenbide bakarra, beti bezala, hezkuntza gehi berrikuntza da. Datu bakarra: joan zen krisialdiko momentu txarrenean, Eustaten arabera, Euskadiko ez okupazio tasa %20a zen: Goi mailako zikloetako ikasleen artean, %16,7a, eta Unibertsitateko ikasleen artean, %12a.*

### **Eskola**

*Mondragon Goi Eskolaren Misioa, Eskolaren Misioa, Gizartea Eraldatzea da, Hezkuntza integralaren bidez, Zientzia eta Teknologiaren esparruan ezagutza sortuz eta gizarteratuz.*

*Eskola ez da guztiz publikoa eta ez da guztiz pribatua. Irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta herri-onura elkarte aitortza ofiziala dauka aspalditik. Gure helburua eskuragarritasun soziala bermatzea da eta gure leloa da "inork ez diezaiola Eskolan ikasteari uko egin arrazoi ekonomikoengatik". Horregatik gure matrikulak Espainako merkeenak dira unibertsitate ez publikoen artean, horregatik aspaldi martxan jarri genuen orain famatua den "dual eredu", ikasleei euren ikasketak egiteko aukera emateko, horregatik "bekabide" programa aspaldi martxan jarri genuen eta horregatik ikasleen matrikulak gure aurrekontuaren %30a dira bakarrik.*

*Kooperazioa gure balore bat da, eta hezkuntzan etengabe transmititzen diegu balore hau gure ikasleei, ondoren, ikasleek lan egingo duten kooperatibetan edo kooperatiba ez diren enpresetan, euren bizitzako edozein ekintzatan, erakusteko.*

*Horretan jardun dugu azkeneko 75 urtetan, 1943tik. Bistan dago Eskolaren eragina gure gizartean, enpresetan batez ere baina ez bakarrik. Gure gizartearentzat egiten dugu lan, pertsonak, gazteak eta langileak, trebatzen, eta enpresei etengabe ezagutza berriak ematen, euren lehiakortasuna indartzeko eta munduan zehar lehiatzeko.*

### **Gautxoriko Industria Aurreratuaren Laborategiak**

*4. Iraultza industriala badator, eta hori ez da hautatu daitekeen zerbait. Zer gertatuko da lanpostu industrialekin? Nola egingo diogu aurre egoera berri horri? Aukera bakarra daukagu:*

hezkuntza, etengabeko prestakuntza eta berrikuntza teknologikoa, gure enpresak eraldatzeko eta lehiakorak izaten jarraitzeko.

Gure proiektua, gure erronka, Industria Aurreratuaren Laborategiak martxan jartzea da. Lehenengo mailakoak, Alemanian edo Britainia Handian dauden mailakoak. Non? Gautxorin, hain zuzen ere. Gure asmoa da laborategi hauetan enpresentzat industria 4.0ko proiektuak garatzea. Gure helburua da enpresen lehiakortasuna bultzatzea, teknologikoki nazioarteko mailan lehenak izan daitezzen euren esparruan. Horretarako, izugarri inbertitzen ari gara laborategi horietan. Aurten, milioi bat baino gehiago inbertitu dugu mekanizatu aurreratuko laborategian, espazioa egokitzen eta makina berrietan; deialdi publikotik (Gipuzkoako Aldunditik hain zuzen ere), bakarrik %10 lortu dugu; bestea guk ordaindu dugu. Ihaz beste milioi erdi inbertitu genuen mekanika aplikatuaren laborategi berrietan, eta esan beharra dago Fagor Ederlanek beste 700.000 €ko inbertsioa egin duela laborategi bat martxan jartzeko, Gautxorin bertan, gure eraikuntzan, ikerketa kolaboratiboa bultzatzeko.

Zertarako nahi ditugu laborategi berri horiek? Industria 4.0 teknologian ikertzeko eta formakuntza emateko, formakuntza arautua eta etengabeko formakuntza. Horiek dira hain zuzen ere Eskolako 3 jarduerak, eta Eskola hazten ari da 3 jardueretan. Orokorrean, azkeneko 3-4 urtetan, urte batetik hurrengora %10 bat hazten ari da Eskola. Orain dela 10 urte, Eskolan 226 Graduko ikasle berri sartzen ziren urtero (178 Arrasaten); aurten, 461 izan dira (377 Arrasaten), bikoitza baino gehiago. Orain dela 10 urte, ikerkuntza eta transferentzian 9 milioi egiten genuen; orain, aldiz, 16 milioi baino gehiago. Orain dela 10 urte, Etengabeko prestakuntzan 8.000 ordu egiten genuen, 2.000 langileekin; orain, aldiz, 12.300 ordu ematen dizkiegu urtero 2.900 langileei, gehienak Arrasate eta inguruko enpresetakoak.

Jarduera berriek espazio berriak eskatzen dituzte. Horretarako egokitzen ari gara espazio berriak, Garaian: goian dagoen eraikuntzan, azkeneko 3 urteetan 4,5 milioi inbertitu ditugu faltatzen zitzaigun eraikuntza erdia egokitzen, behean dagoen eraikuntzan, Gautxorikoan hain zuzen ere, laborategi industrialak jartzeko. Gautxorin zeunden klaseak eta departamenduak mugitu ditugu, eta goiko eraikuntzan daude iadanik.

Gautxoriko eraikuntzako 5.000 metro karratuetan Arrasateko enpresa industrialekin egiten dugu lan. Ikerketa guztiz esperimentalak garatzen ari gara industria laborategi hauetan, lur industrialeko 5.000 metro koadro horiek balioan jartzeko. Horretarako landu ditugu epe luzeak akordioak Arrasateko enpresa garrantzitsuenekin. Batez ere kooperatibekin (Fagor Arrasate, Fagor Ederlan, LKS...), baina ez bakarrik kooperatibekin (JMA gure Kontseilu Errektorean dago, Polmetasakin dual eredia bultzatzen ari gara, Ekiderekin aspalditik daukagu martxan epe luzeak plangintza kolaboratibo bat, eta abar). Testuinguru honetan, aipatu behar dugu Ekide, Fagor Arrasate eta Fagor Ederlanekin garatuko ditugun ikerketa eta berrikuntzako epe luzeak akordioak, euren lehiakortasuna bultzatzeko, akordio bakoitzean azaltzen den bezala. Enpresa horietara gure ikasle asko doaz urtero, euren beharrei erantzuna emateko, eta 3 enpresa horiekin bakarrik gure ikerlariek 25.000 ordu baino gehiago egiten dituzte urtero.

### **Gautxoriko Urbanizazioa**

Gautxoriko lursailak 26.221 metro karratu ditu, 19.059 Mondragon Unibertsitatearenak dira. 2018ko urtarrilean, Gautxori Esparruaren Hiri Antolamenduaren Plan Berezia onartu zen, Arrasateko Plan Orokorrean Gautxori lursaila integratzeko; atzetik datoz Hirigintzako Jarduketako Programa, Hirigintza Proiektua eta Birpartzelazio Proiektua. Nahiz eta Hirigintza proiektu bakarra egon, integrazio honetan 5 erabilera onartzen dira orokorrean: Irakaskuntza Hornikuntza, Jarduera Ekonomikoa – Parke Teknologikoa, Espazio Libreak eta Berdeguneak, Komunikazioak (hiriko bideak eta motor gabeko trafikoa), Ibaien ibilguak. Lehenengo biak pribatuak eta azkeneko hirurak publikoak. Gautxori lursaila era egokian Arrasateko Hirigintza Orokorrean integratzeko, Eskolak hartzen du erantzukizuna Udalarekin batera Arrasatearentzat oso ona izango den proiektu publiko-pribatu honetan.

*Mondragon Goi Eskolako Koordinatzaile Orokorra*